

Sidenorren plangintza negoziatuko dute sindikatu eta zuzendaritzak

Aurtengo hitzarmena sinatzeko aurrekordiora heldu ziren azken bileran

Acenor eta Foarsa biltzen dituen Sidenor holdinga eta ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuak, 1991ko hitzarmen kolektiboa sinatzeko aurrekordiora heldu ziren ostiralean Madrilén egin zuten bileran. Ondorioz, sindikatuek Sidenorrek proposatzen duen bideragarritasun plangintza eztabaidatzea onartu dute.

BILBO

Acenorrek lau sindikatu nagusiek eta Sidenor altzairu berezien holdingeko arduradunek egin duten bostgarren bileran enpresaren bideragarritasun plana negoziatzeko mahaia eratzea erabaki zuten.

Aurreko lau aldietan ez zen akordiorik lortu, sindikatuek plangintza negoziatu aurretik hitzarmen kolektiboa sinatzea eskatzen bait zuten. Azkenean, ostiralean hitzarmena sinatzeko aurrekordiora heldu ondoren, sindikatuek plangintza negoziatzea onartu zuten. Aurrekordioan % 7ko soldata igoera jasotzen da.

Sidenorren Bideragarritasun Plangintzaren arabera, Acenorrek



Acenorren egoera badirudi konponbidean degoela.

ANDER GILLENIA

Hernani eta Laudion lantegiak itxiko lirakeke eta 1.690 lanpostu deuseztatuko lirakeke. Gaur egun 3.500 langile inguruk osatzen du Acenorreko plantila, Hernani, Laudio, Gasteiz, Larrondo eta Basauriko lantegietan banaturik.

Plangintzari buruzko negoziazioen abiapuntuak altzairu taldearen finantz eta ekonomi krisi larria, Boston Consulting Group Geslink aholkularitza enpresak egindako ikerketa eta Sidenorrek onartutako bidera-

garritasun plangintza bera izango dira. ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek eta Sidenorrek arduradunen ustez, plangintza estrategikoaren negoziatioari irtenbide azkarra ematen bazaio, enpresaren finantz eta ekonomi arloko egonkortasuna bideratu ahal izango da.


Acenorreko langileak oporretan daude datorren urtea hasi arte. Gogoratu azken egunotan bost lantegiak geldirik egon direla, Iberdrolak argindarra moztu ondoren.

Ardi esnearen egoera konpondu gabe

LE. / BAIONA

Herenegun prefetak Paben kudeatu bilerak eta esne industriari eginak ez dute ezer konpondu ardi esnearen prezioaz. Aurreko astean Aiziritzen iragan okupazio eta solasaldiek lortu zuten ostiralean bi bilera horien ospatzea. Larunbat honetan gauzak hein berean daude, iragarri diren bilera berriak arte.

Nekazal munduan etsipena nagusitzen ari da asteburu honetan, uste bait zen ostiraleko bileretan behin-betiko aterabideak agertuko zirela. Gainera berritasuna da laborarien ordezkariek, ELBkoak eta FDSEAKoak, orain arte aho batez mintzatu zirenak, ikuspuntu ezberdinekin jarri direla. Prefetak goizean deitu bileran, administrazio, industriari eta esne ekoizleen ordezkariek bildu ziren. Jatorrizko izendapena esnearentzat, AOCrentzat, ez da batasunik honentzarako laguntzak gazarri batzuek hedatu nahi dutelako eta ez esnearentzat soilik eman. Bestalde Kontseilu Nagusi edo Akitaniakoek zer laguntza emanen duten litroa 6 liberetan jartzeko ez da zehaztu.



Jose Elorrieta. AITOR BAYO

Elorrieta egoerak «txarrera» egingo ote duen beldur da

V.P. / BILBO

ELA sindikatuko idazkari nagusia den Jose Elorrietaren esanetan, une honetan «zalantza, ardura eta beldur handia dago gauzak okertu daitezkeelakoan, azaroaren 30eko manifestazioan erakutsi zen bezala». Bere ustez «ordua da neurriak hartu eta instituzioek egoeraren kontzientzia har dezaten».

Elorrietaren iritziz, «Eusko Jaurilaritzak kontsulta eta negoziatorako jarrera irekiagoa erakutsi beharko luke sindikatuekiko». Era berean, «azken urteotako batasun sindikala hausteko arriskurik» ez dagoela gaineratu zuen.

EKO

ONDORROSTI

24A ARTE

GABONETAN AURREZTU

- **EUROMAR**
Avda de Navarra, 37 · ZARAUTZ
- **HERNANI**
C/ VILLAS, 16 · HERNANI
(Antes COOP. JUAN BAUTISTA)
- **AIETE**
Grupo Elxadi, 4
- **ALZA**
Paseo Larratxo, 96
- **BERAUN**
Avda. Galzaraborda, s/n · RENTERIA
- **ORERETA**
Vicente Elcegui, 5
- **IZTIETA**
San Sebastian, 16 · RENTERIA
- **LEZO**
Avda. Jaizkibel, 1 · LEZO
- **SAN MIGUEL**
Blas de Lezo, 22 · San Miguel · IRUN

1.28

PIÑA COSTA MARFIL

Kg.

725

SALMON IZOKINA

1-2 Kg.

1.050

WHISKY J&B

(75 cl.)

450

SIGLO SACO

Beltza

550

KABA CODORNIU

3/4 (Sekoa eta Semisekoa)

450

BOMBOIAK "FERRERO ROCHER"

310

OTOÑAL

Beltza eta gorria

550

MISERA

Konjelatua eta egosia 250 gr.

448

PATE "SOKOA"

9 lata
(eta botella bat champagna opari bezala)

ETA ESKEINTZA GEHIAGO GURE SAIL DESBERDINETAN:

LURRINDEGIA

HARATEGIA

DROGERIA

ARRAINDEGIA

URDAITEGIA

FRUTA DENDA

765

BRANDY TORRES

10 urte